

steilas en informazio elektronikoa • 2020/05/8

**IKASTETXEAN AURREZ AURREKO JARDUERARI BERRIRO
EKIN AHAL IZATEKO EZARRI BEHAR DIREN BABES NEURRIAK**

Deseskalada hasiko den egun hauetan, gogoratu behar da alarma-egoeran eta amaiera deklaratu ondorengo hiru hiletan, indarrean mantentzen dela enpresetan telelanaren bidez lan egiteko lehentasuna, baldin eta bideragarria bada.

Hala ere, ikastetxe batzuetan langile batzuk behartuko dituzte aurrez aurreko lanari berriz ekitera, eta, beraz, oso garrantzitsua da ziurtatzea enpresak beharrezko neurriak hartzen dituela langileak kutsaduratik babesteko. Neurri horiek langileen ordezkari sindikalekin adostu behar dira, eta langile guztiei jakinarazi behar zaizkie.

Hauek dira funtzezko neurriak:

1-Zentroko instalazioen eta ekipamendu osoaren hasierako garbiketa eta desinfekzioa, tresna informatikoak barne. Lanean hasi ondoren, egunero garbitu eta desinfektatu beharko da, langileen, ikasleen eta familien segurtasuna bermatzeko.

2- Koronabirus-testak bermatzea langile guztientzat. Oso garrantzitsua da gutxienez bermatzea lanean hasi aurretik testak egingo zaizkiela kutsatutako pertsonekin harremanetan egon diren pertsonen, gaixotasun kronikoak dituztenei, haurdun daudenei edo 60 urte baino gehiago dituztenei.

Ikastetxean koronabirus-kasuren bat gertatzen bada, langile guztiek testa egin beharko dutela exijitu behar da.

3-Lanpostu guztietan 2 metroko segurtasun-distantzia bermatu behar da. Ikasleak itzultzerakoan, 1,5 mko distantzia hori bermatu behar da ikasgelan eta jolastokian eta maskarak eraman beharko dira bai ala bai.

4-Enpresak beharrezko babes-neurri indibidualak jarri behar ditu, hala nola eskularruak, maskarak, pantailak, gela desinfektatzaileak, etab.

5.- Material edo erreminta komunak erabilera arautu behar da, erabiltzailea aldatzen den bakoitzean haiek garbitu eta desinfektatuko direla bermatzeko.

Enpresaren eta langileen ordezkarien artean neurriekin ados ez badaude, jarraibide hauei jarraituko zaie::

a. Aldeek OSALANI aholkularitza eskatuko diote kontingentzia-planaren barruan langileen osasuna bermatzeko neurri egokiak jasotzen ote diren argitzeko.

b. Oraindik adostasunera heltzen ez badira, Laneko Ikuskatzaileak txostena egin ondoren, Lan-agintaritzak egoera 24 orduko epean ebaluatuko du eta, egoeraren arabera, dagokion moduan jardungo du.

Enpresa bat jarduerara abiarazteko neurriak finkatu gabe itzultzen denean, langileen ordezkariak Lan Agintaritzara jo ahal izango dute. Honek, Laneko Ikuskatzailezarekin eta OSALANekin batera, egoera lehentasunez ebaluatuko du eta behar diren neurriak hartuko ditu.

Hezkuntzan STEILAS!www.steilas.eusAraba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eusBizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eusGipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eusNafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus